

Gure web-orrialdean, eguneroko plangintza agertuko da, hau da, egingo dituzten ekintzak, erabiliko duten materiala, ibilaldien nondik norakoak..... Horrez gain ordutegia, antolatzaileen telefono zenbakia eta gmaila ere bertan agertuko dira. Guzti hau familiak informatzeko eta interesa pizteko da, horrela momentu oro ikusi ahal izango dute bere hurrek egiten ari direna.

Gurekin kontaktuan egoteko erraztasunak emango dizkiegu telefono eta gmail helbidea luzatuz. Gainera, kartelak itsatsiko ditugu interesa egon daitekeen lekuetatik, adibidez, ikastetxe inguruetan, ikastoletan polikiroldegietan edo haurrak egon daitezkeen bestelako espazioetan.

Gure enpresak aisialdi zerbitzu bat eskaintzeaz gain, balore batzuk ere sustatu nahi ditu (euskara, naturarekiko harremana...). Saiatu egingo gara ahalik eta dinamikoena izaten; ekintza dibertigarrien (eskulanak, txangoak...) bidez balore jakin batzuk integratzea da gure erronka handiena.



Haurrak baloreak hauek barneratzen dabiltzaten bitartean ondo pasatzen badute, eta gurasoak inplikaturata badaude, gurekin geldituko direla pentsatzen dugu.

Familien inplikazio hori bilatzeko egun berezi bat egongo da hilero; egun horretan familiek ere dinamika edota ekintzetan parte hartuko dute. Ekintza hauek ibilaldiak izan daitezke, eskulanak, hitzaldi bat prestatzea.....

Hilabete bakoitzean, bilera bat egingo dugu. Batzar hauek gure aldetik ekintza berriak azaldu eta beraien aldetik proposamen berriak egin edo iritzia emateko baliagarriak izango dira: zerbitzua nola ikusten duten, antolaketaren inguruko hobetu beharrekoak, zer gehitu, zer kendu...). Beraiei galdetuko diegu zer egin nahi duten.

Guzti honekin, bezeroekin harreman estu bat lortu nahiko genuke. Horrez gain hurbila ere izatea lortu nahi dugu. Aisialdi talde honetan bezeroak izugarrizko garrantzia izango dute guretzat, beraz, haien iritzi edo proposamenak kontuan izango ditugu. Hori da gure helburu nagusia.



Ez dugu ezer zorrotz jokatu, adibidez, haur batek ez badu ekintzaren batean parte hartu edo beldurra badu, ez diogu parte hartzera derrigortuko. Hauei goxotasunez tratatuko diegu eta beraien beharrak identifikatuko ditugu.

Hezitzaileak izatean, familiak haurrak gure esku uzteaz seguru sentituko direla uste dugu.

Larrialdiren bat gertatuz gero, taldekide denok ditugu larrialdi egoeratan jokatzeko ezagutzak. Hau da, haur bat erortzen bada edota itoketa bat badu, badakigu nola jokatu behar den. Lehen sorospeneke ezagutzak ditugunez gurasoei konfiantza bermatzea nahi dugu